

BALOREZKO PROPOSAMENAK

Gure proiektua Pikler parkea muntatzea da, haur hezkuntzan garrantzia handia hartzen ari den metodologiari lotuta dagoena. Gizartean ikusi dugun hutsunea 0-3 adin-tarteko haurrentzat parkeak ez zeudela izan da , eta horrek bultzatu gaitu proiektu hau aurrera eramatera. Haurren behar fisiko eta psikikoak asetzen dituen parke bat sortuz.

Nobedadea: Metodologia berritzaile bat erabiliko dugu parke hau egiterakoan, Emmi Piklerrena zehazki.

Prestazioa: Klimatizatuta egongo da, haurren mugimendu librea sustatuko du, sabaia estaltzeko eta irekitzeko aukera emango du eta hainbat ate egongo dira haurrak haien kabuz bertara sartu eta atera ahal izateko.

Erabiltzeko Erraztasuna: Bertan haurrak beraien kabuz, gurasoen laguntzarik gabe, jolasteko eta mugitzeko aukera izango dute. Haien mugimendu librea sustatzeko. Parke hau prest egongo da horretarako, hau da, segurua eta garbia izango da.

Pertsonalizatzeko aukera: Gure enpresako parkearen eredua, bezeroaren nahien arabera aldatzeko aukera. Beraiei eredua aurkezterako garaian, material desberdinak aukeratzeko aukera izango dute.